

NEURKETAREN KONPLEXUTASUNA

Rosa Ramos

Euskara Teknikaria

Helbide elektronikoa: euskara@berriozar.animsa.es

Euskararen Erabileraren Kale Neurketa konplexua da, izan ere, alderdi asko hartu behar dira kontuan metodologia zehazterakoan eta datuak aztertzerakoan. Datuak jasotzean martxan jartzen den makineriari ere ez zaio zailtasunik falta: neurtzaile asko eta prestakuntza saio ugari Euskal Herri osoko datuak epe laburrean jasota gera daitezten. Euskararen normalizazio prozesuaren diagnostikoa egiteko horren garrantzitsua den azterketa honek ez dauzka eskura mereziko lituzkeen baliabide ekonomikoak, eta, horregatik, berezko zailtasunari gehitzen zaio pertsona askoren lan desinteresatuarekin kontatu behar izatea. Eskerrik asko, beraz, neurketa bideragarri bihurtzen duten neurtzaile guztiei.

Aipatu bezala, neurtaldi berri bati begira egin behar den metodologiaren eguneratzea eta egokitzea ez da erraza, Erabileraren Kale Neurketa oso sentibera baita gizartean gertatzen diren aldaketen aurrean. Esaterako, eskuko telefonoaren erabilera zabaldu zen urteetan neurtzaileek jasotako "bakarrizketak" neurketan integratzeko irizpideak landu behar izan ziren. Azken neurtaldian etorkinek gure herri eta hirietara ekarritako hizkuntzen erabilera proportzioa jasotzeko ahalegina egin da, aurrean daukagun errealitate osoaren zatia baita. Aldaketak aldaketa, neurtaldi bakoitzean metodologia garatu eta osatu bada ere, Iñaki Larrañagaren gidaritzapean Siadecok egindako lehenengo neurketetatik datu jasotze mota honek izan duen ezaugarri bat azpimarratu behar da datuak ongi ulertzeko: neurtzaileek diskurtsoak jasotzen dituzte ez hitzun zehatzen erabilera. Izan ere, jakina denez, hitzun elebidunok hizkuntza aldatzen dugu komunikatu behar dugun hitzunaren ezaugarrien arabera (elebakarra, elebiduna, gaitasun erlatiboa...). Ñabardura garrantzitsua da, datuek ez baitute besterik esaten. Tentagarria bada ere, ezin ditugu, adibidez, hitzunak bi multzotan sailkatu: euskara erabiltzen dituztenak eta erabiltzen ez dituztenak. Datuen irakurketa, ezinbestean, konplexuagoa da.

Metodologia ongi ulertzea, bada, datuak irakurtzeko baldintza da. Horretaz gain, analisiak kontuan hartu behar du Txillardegik, Euskararen Erabileraren Kale Neurketa bera oinarri, sortu zuen Soziolinguistika Matematikoak egindako ekarpena. Azken garai honetan hizkuntzen era-

bileraz hausnartzeko boladan dagoen hiztunaren alderdi emozionalari eta psikosozialari garrantzia kendu gabe, ezin dugu bazterrean utzi hiztun elebidunek sortutako hizkuntza komunitateak egituratzeko eta hiztun berriak erakartzeko daukan (edo ez daukan) indarraren garrantzia; hau da, egiturazko aspektuen garrantzia. Izan ere, pisu guztia hiztun elebidunen jokaeran jartzen badugu, hurrengo urratsa izan daiteke ezagutza eta erabileraren arteko aldearen erantzukizuna hiztun horien leialtasun faltari egotea, gainerako eragileei, hiztun elebarkarrei hain zuzen (eta gizartean elebarkarren eta elebidunen artean gertatzen den elkarreraginari), inolako garrantzirik eman gabe.

Hizkuntzaren normalizazioaren ikuspuntutik, datuen azterketa hutsa gaudituta, egoeraren diagnostikoa egiten laguntzen duen edozein ikerketa lotu nahi izaten da praktikan egin behar diren lanekin. Hau da, egindako lanaren ebaluaziorako tresnak eta aurrerentzean egin beharko denaren zantzuak bilatzen dira datuen irakurketan eta analisisian. Ikuspuntu horretatik ere, ez dut egoera sinplea ikusten, ñabardura askotakoa baizik. Hala ere, erantzun borobilik gabe, hainbat galdera egiteko aukera ikusten dut datuen irakurketan. Esaterako, azken hamarkada hauetan garatutako hizkuntza politika eta normalizazioan aurrera egiteko erabilietako baliabideak lotuta daude herrialde batetik bestera ikusten den erabileraren hazkunde erritmo ezberdinarekin? Edo, haur etorkinen eragina arrazoi nahikoa da 2001ean argi eta garbi ikusten zen euskararen erabileraren eta haurren presentziaren arteko lotura 2006an ahulduta agertzeko?

Hausnarketarako gai ugari eskaintzen dizkigu Euskararen Erabilpenaren Kale Neurketak. Etorkizunean jasotako datuek argituko dituzte oraingo zalantzak eta beste kezka iturri batzuk zabalduko dituzte, euskararen normalizazioaren lanean askotan gertatzen zaigun bezala, bide bat jorratzeak beste batzuen hasiera dakarrelako. Euskararen Erabilpenaren Kale Neurketak euskararen normalizazioaren lanean aurrera egiten lagundu dezake, baldin eta bere konplexutasun osoan onartzen badugu, sinplifikaziorik gabe.■

Euskararen normalizazio prozesuaren diagnostikoa egiteko horren garrantzitsua den azterketa honek ez dauzka eskura mereziko lituzkeen baliabide ekonomikoak, eta, horregatik, berezko zailtasunari gehitzen zaio pertsona askoren lan desinteresatuarekin kontatu behar izatea. Eskerrik asko, beraz, neurketa bideragarri bihurtzen duten neurtzaile guztiei.